

► Azaroaren 22tik 25era ◀



Zinegin

FESTIBALA

EUSKAL ZINEMALDIA

Hazparne - Donapaleu - Urruña

FILMAK :

**GURE OROITZAPENAK - JAINKOAK EZ DIT BARKATZEN - LABURDI -
NESKATOAK - OREINA - BASQUE SELFIE - BARRIOLA, SAN ADRIANGO
AZERIA - MAI DA BAI ETA EZETZIK EZ DAGO - HANDIA - MARGOLARIA**

Sar Hitza

Zineginen 7. artea!

Eihartzea kultur etxea eta Ttattola gaztetxearen elkarlanetik sortu zen Zinegin festibalak bere 7. edizioa ospatuko du aurten... eta edizio berezia izanen da hau! Lehenik, aitzineko edizioak errezibitu dituen Hazparneko Haritz Barne zinema gela hetsia baita, berritzeko obren egiteko. Horregatik, parada zen Hazparnetik atera eta festibala herritik kanpo ezagutarazteko: aurten, Zinegin Urruña eta Donapaleun ere ibiliko da. Milesker beraz Itsas Mendi eta Saint-Louis zinemei, beren pantaila zuriak euskaraz bizi-araziko baitituzte. Bestalde, Zinegin festibalak ere Euskaraldian parte hartuko du, eta agian herri ezberdinetako pantailetan sortu emozioek hitza fikziotik mihietara iragaitera lagunduko dute!

Eskerrak

Donapaleuko Saint Louis eta Urruñako Itsas-mendi gelei, herrietan zinema bizi-arazteagatik; Hazparneko Berria trinketari urte berezi honetan gela bat eskainirik; Beskoitzeko ikastolari Bardozeko emanaldiaren antolaketarengatik; eta Waaz estudioari. Esker bereziak ere Euskal Zine Bilerari eta Kimuak-i film laburren hedapenean beren esperientzia partekaturik eta laguntza emanik.

Zinegin Festibala

info@zinegin-festibala.eu
www.zinegin-festibala.eu



Osteguna 11/22a



GURE OROITZAPENAK

- Zuzendaritza:** Oskar Alegria, Özcan Alper, Asier Altuna Iza, Mireia Gabilondo, Eugène Green, Itziar Leemans, Josu Martínez, Fermin Muguruz, Ane Muñoz Mitxelena, Maider Oleaga, Carlos Machado Quintela, Maialen Sarasua
- Hizkuntza:** Eu, Es, Kurduera, Fr
- Azpituluekin:** euskara

HAZPARNE

- 20:30- (96')** Fikzioa
- Prezioa:** 3 €

Joseba Sarrionandiaren obran oinarrituz, 12 zuzendarik osatu dute fikziozko film luze hau. Idazlearen literaturan agertzen diren elementuetako anitz agertzen dira hemen: itsasoa, portua, haurtzarora, trenak, deserrotzea, ihesa, noraeza, erbesteak, gerra, suntsipena, amodioa, deriba, mina, fantasia, misterioa, inimizia, tortura... Ikusleak, olerki liburu batean bezala, zatitzi sentipen desberdinak ukandu ditu: batekin hunkitua izan da, bestearekin gogoeta egin du, edo kezkatuko da, eta oraino beste batekin irri egin du. Hauek denak ikusita, oren bat eta erdi Sarrionandiaren ubertsoan egon dela sentituko du.

Larunbata 11/24a



JAINKOAK EZ DIT BARKATZEN

- Zuzendaritza:** Josu Martínez
- Hizkuntza:** Eu, es, fr
- Azpituluekin:** euskara

HAZPARNE

- 18:00- (60')** Dokumentala
- Prezioa:** 3 €

Lezo Urrezieta XVI. mendeko pirata bat zen, tronpaturik 1907. urtean sortua. Bere bizia arriskuan ezarri, eta ehunka pertsona salbatu zuen; Euskal Herriaren askatasuna negoziatu zuen atzerriko gobernuekin; armaz bete 17 itsasontzi sartu zituen Bilbon Gerla Zibilean; Franco garbitzekotan izan zen... Lezo hil eta berrogei urtera, Martin Ugalde idazlearen magnetofonoak haren istorio sinestezina ezagutaraziko digu, protagonistaren beraren bozaren bidez. 1975. eta 1978. urteen artean elkarrekin izan elkarriketa batzuetatik abiatuak, film honek argitara aterako du XX. mendeko euskal historian funtsezkoak izan zen eta ezezaguna zaigun norbaiten lekukotasuna.

Ostirala 11/23a



NESKATOAK

- Zuzendaritza:** Jon abril
- Hizkuntza:** Eu, Es
- Azpituluekin:** euskara

URRUÑA

- 18:00- (68')** Dokumentala
- Prezioa:** 3 €

Franskismo garaian, neskato edo sehi gisa lanean aritzeko Ipar Euskal Herrira eta Frantziara joan ziren emazteen historia. Jon Abrik bere amaxi Micaelaren neskato bizimoldeari tiraka ondu du dokumentala, bizitzeko borrokatu ziren emazte langileen historia bilduz. Batez ere 50eko hamarkada hastapenean joan zirenak elkarriketatu ditu. Zaharra ibai bazterrean bizi da, anaiarekin, baina badu urteak ez direla elkarri mintzo. Inta bazterrean, itsasaldiek markatzen dute amodioaren eta desamodioaren, adiskidetasunaren eta mendekuan denbora.



BIDEO-POTE: LABURDI

- Hizkuntza:** Eu

HAZPARNE

- 19:30- (75')** Film labur konpilaketa
- Prezioa:** urrikik

PASTOREAK Zuzendaria: Eukeni Arriortua Barrenetxea Iraupena: 29' 17"
Zer da gaur egun artzain izatea? Ohiturak, transmisioa eta mundu horretan emazteek duten toka aipatzen ditu dokumental honek.

ZAIN Zuzendaria: Pello Gutiérrez Iraupena: 12' 35"
"Ez zaidazu galdetu gauza ilun guztien arrazoi gordea, nora ote dijoan denbora aldakorrek daraman bidea, daraman bidea..."

ESPEDIZIO HANDIA Zuzendaria: Iban del Campo Iraupena: 10' 30"
Gizakiak, berez dena baino gehiago izan nahi du, izarren hautsa baino zerbait gehiago.

SHELL PHONE Zuzendaria: Miren Mujika Iraupena: 9' 42"
Mertxe, gaurko teknologia berriekin gaizki moldatzen da eta semeak bere lagutzeko denborarik ez du.

DEUS ET MACHINA Zuzendaria: Koldo Almandoz: 9'
Egunero makinak pizteko zeremonia abiatu eta bere lan zehatz, eta monotonoa hasten du. Gaur aldir erabaki bat hartu du...

TTARTALO Egilea: Koldo Almandoz Iraupena: 4' 35"
Tartalok zailtasunak ditu «garai puta hauetara» egokitzeke.



OREINA

- Zuzendaritza:** Koldo Almandoz
- Hizkuntza:** Eu
- Azpituluekin:** sous-titre: français

URRUÑA

- 20:30- (88')** Fikzioa
- Prezioa:** 3 €

Khalil gazte desertirua hiriaren inguruan bizi da, industrialdea ibaiarekin eta intaren elkartzan den tokian. Khalil ahal bezala ateratzen da aitzina, eta egunak baimenik gabe arrantzain ibiltzen den zahar batekin iragaten ditu. Zaharra ibai bazterrean bizi da, anaiarekin, baina badu urteak ez direla elkarri mintzo. Inta bazterrean, itsasaldiek markatzen dute amodioaren eta desamodioaren, adiskidetasunaren eta mendekuan denbora.

Khalil, jeune déraciné, vit en périphérie de la ville, là où les zones industrielles côtoient le fleuve et le marais. Khalil essaie de s'en sortir grâce à de petites combines. Il aime passer son temps libre avec José Ramón, un vieux braconnier qui partage la maison près du marais avec son frère Martin, un universitaire déchu. Dans cet espace clos, entre ville et nature, se tissent les destins des trois personnages, ballottés entre amitié et rancœur, frustration et désir.

Igandea 11/25a



BASQUE SELFIE

- Zuzendaritza:** Joaquín Calderón
- Hizkuntza:** Eu, es
- Azpituluekin:** euskara

DONAPALEU

- 15:00- (83')** Dokumentala
- Prezioa:** 3 €

Agus Barandiaranek, mundu osoan euskal musika eta dantza tradizionalaren enbaxadore izanak, buru egin behar dio euskaldun batek izan dezakeen amesgaizto latzenari: familiaren 1540ko baseria bota nahi dute, bide berriaren egiteko. Agus gertakarien kontra borrokatu behariko da bere erroen babestera entsetzeko. Izan ere, euskal kultura, lau murrubaino aise gehiago da "etxea". Basque Selfie istorio triste da, baina etsenpluzkoa, eta tradizioa du ardatzean: identitatearen ezaugarriak bizirik atxikitzeke tradizioa.

Larunbata 11/24a



BARRIOLA, SAN ADRIANGO AZERIA

- Zuzendaritza:** Juanba Berasategi
- Hizkuntza:** Eu

BARDOZE

- 10:00- (70')** Marrazki biziduna
- Prezioa:** urrikik

Lainotik erorita bilakatu zen azeria azeri, alegia, maltzur. Geroztik, begi batekin oloak zaintzen ditu, eta bestearekin saia: ikazkinek bezala. Zertarako akitu oi haneko lanetan, mendian zakua beterik duten pertsona burugabeak ibiltzen badira? Aizkorriko ikazkinek, Barriola azeria buru harturik inguruko bide-lapur multzoa osatzen dute. Ez dira arangurarik gabe halere: Barriola, Graziana deitu oloaz maitemindu da... eta ustekabeen, hara non Segurako auzapezak proposatzen dien beste nonbait ibiltzea ohointzan: ona liteke udalaren zerga-kutxarendako...



MAI DA BAI ETA EZETIK EZ DAGO

- Zuzendaritza:** Imanol Epherre, Eider Ballina Mondragon, Ann Baskaran
- Hizkuntza:** Eu, es, mapuzungun
- Azpituluekin:** euskara

DONAPALEU

- 17:15- (30')** Dokumentala
- Prezioa:** urrikik

Gaur egun Argentina eta Txile bezala ezagutuak diren lurralde zabalean bizi dira Maputxak azken mende luzeetan. Haien hizkuntza, mapuzungun izenekoa, mehatxatua da oraindik. Baina hemen bezala, gazteak antolatzen ari dira beren hizkuntza berreskuratzeko eta transmitzeko.



HANDIA

- Zuzendaritza:** Jon Garaño, Aitor Arregi
- Hizkuntza:** Eu

HAZPARNE

- 15:30- (114')** Fikzioa
- Prezioa:** 3 €

Lehen Karlistaldian borrokatu ondoren, Martin Gipuzkoako bere etxera itzultzen da. Bere anaia Joakin ikustean harrizten da: bana besteakoa baino aise handiagoa da. Mundu osoak Lurreko gizon handiena ikusteko ordaindu nahi izanen duela sinetsirik, bi anaiek bidaia luze bat hasiko dute Europan zehar. Bidean, anbizioak, diruak eta famak betiko aldatuko dute familiaren patua. Egiazko gertakiaritan oinarritu istorioa.



MARGOLARIA

- Zuzendaritza:** Oier Aranzabal
- Hizkuntza:** Eu, es, ing, jap
- Azpituluekin:** euskara

DONAPALEU

- 18:30- (103')** Dokumentala
- Prezioa:** 3 €

Mikel Urdangarin musikariak eta Alain Urrutia margolariak goiz batez Skype bidez elkarrekin izandako elkarriketa batean abiarazi bidaia-kontakizuna. Margolariak bere obretako bat eskainiko dio Mikeli, opari, baina baldintza batekin: musikariak itsasoan zehar, ferryan, joan behariko du Londresera opariaren bila. Bidaia aitzakia harturik, bere lanaren emaitzak bizitzearan alde apustu egiten duen artista baten egunerokoan barna sartuko gara, artista orenen laborategiaren erdigunean ezkatzen den giltzarria heldu arte, bilaketa guziak baitira eguzko bidaia; eta sorkuntza-prozesua ere berez baita bidaia.

Ostirala 11/23a

GAUALDIA: Elirale konpainiaren "Artha" ikusgarriaren soinu bandaren entzumena.

 *Musika: Paxkal Irigoyen*

URRUÑA

➤ 22:30- (54')

➤ *Prezioa: urrikik*

Zinema-gela batean irudirik ez? Ez, irudirik ez, eta musikaririk ere ez... musika eta soilik musika, biluzik, baldintza ezin hobeetan... Paxkal Irigoyenek Artha dantza ikusgarriarentzat sortu musikaren emanaldi esperimentalak; ilunpean...

Larunbata 11/24a

GAUALDIA: Bertso Margo gaualdia: Adur Larrea, Maddalen Arzallus eta Alaia Martin.

HAZPARNE

➤ 21:00

➤ *Prezioa: 3€*

Bertso/Margo

Gaueko 9etan, KliKlap «Jo!» lehiaketako film laburren aurkezpen eta sariztatze ofiziala.

Ondoren marrazki eta hitzen arteko solas bat, performantzia bat, arte inprobisatu saio bat. Bi bertsolari, bi margolari eta haien artean zonbat hari?

Lekuak

HAZPARNE: Berria Trinketa - 68 Francis Jammes karrika - 64240 Hazparne

DONAPALEU: Saint-Louis Zinema-gela - Jean Urruty karrika - 64120 Donapaleu

BARDOZE: Zinema-gela - Bardoze zentroa - 64520 Bardoze

URRUÑA: Itsas mendi zinema-gela - 29 Bernard de Coral karrika - 64122 Urrugne

Ordutegiak

Filmak	Prezioa	Iraia	11/22	11/23	11/24	11/25
GURE OROITZAPENAK	3€	69'	20:30			
NESKATOAK	3€	68'		18:00		
OREINA	3€	88'		20:30		
ELIRALE KONPAINIAREN "ARTHA" IKUSGARRIAREN SOINU BANDAREN ENTZUMENA	Ø			22:30		
BARRIOLA, SAN ADRIANGO AZERIA	Ø	70'			10:00	
HANDIA	3€	114'			15:30	
JAINKOAK EZ DIT BARKATZEN	3€	60'			18:00	
BIDEO-POTE: LABURDI	Ø	75'			19:30	
BERTSO MARGO GAUALDIA: ADUR LARREA, MADDALEN ARZALLUS ETA ALAIA MARTINEKIN.	3€				21:00	
BASQUE SELFIE	3€	83'				15:00
MAI DA BAI ETA EZETZIK EZ DAGO	Ø	30'				17:15
MARGOLARIA	3€	103'				18:30

Lekuak

- HAZPARNEKO BERRIA TRINKETA
- URRUÑAKO ITSAS MENDI ZINEMA-GELA
- BARDOZEKO ZINEMA-GELA
- DONAPALEUKO SAINT LOUIS ZINEMA-GELA



URRUÑAKO
ZINEMA
DONAPALEUKO
ZINEMA

Berria [®]
hôtel restaurant trinquet

